

Folklore Basque-a



ENEKO GORRI GANTIER
EUSKARA TEKNIKARIA

Uda hasiera. EHZ festibalaren bihamuna (atx, buruko mina). Ikasurte kargatu baten ondotik, hatsa hartzeko gogo. Burua hustu. Funtsezko elementuei berriz konektatu. Familian denbora hartu, aspaldiko lagunak berriz ikusi eta eguneroko borrokak (pikka bat) pausan eman. Benetan?!...

Familian herriko plazara abiatu oinez, merkatuko giroan kafe bat hartzeko. Usaian baino saltzaile eta erosle gehiago bada, sasoi turistikoa hasi den seinale. Salmahaiei begiradatxo bat: hemen Ezpeletako biperren itxurako bitxi saltzaile bat, han bere barazkiak hemengoak direla sinestarazteko karpa lauburuz bete duen *komertxanta* diruzalea, ondoan Galiziako zerrikia "*charcuterie locale*" panel azpian saltzen duen kopetaduna eta ikurrinak bazter orotan! Bainu oihaletik, karta postalera, xingolatik, zapi puntara... Folklorizazioa eta kapitalismoa txanpon beraren bi aldeak.

Alabekin euskaraz mintzatzen entzun zaituen saltzaile gazte bat "zein hizkuntzatan" ari garen galdezka. "Hemengo hizkuntza: euskara! Ez duzu

Badu mende erdi bat gure Herriaren kultura karta postal batean sartu nahi dutela, helmuga turistiko erakargarri bat saltzeko eta jaunttoen boterea errotzeko

sekulan entzun, ala?" galdetzen diozu lañoki (baina asertibitate pittin batekin hala ere). Bere erantzuna: "Ez dut uste, alta hemen sortu eta handitu naiz ni". Kostalde frantsestu honetako plazan, dena da *basque* baina nehor ez *euskaldun*.

Zenbait egun berantago, furgonetaz Lapurdi ipar mendebaldetik Baxenafarroa hego ekialdera bidaian, bide bazterretako panelei behako bat. Herriko

besten kartelak turistentzako eskaintzarekin lehiatzen dira. "*Gala de force basque*", "*Spectacle de danses folkloriques*", "*Défi de pelote*", "*Méchoui traditionnel*", "*Coeurs d'hommes du Pays Basque*" ... hor ere hitzek eta iruditegiak begiak zirtzikatzen dizkizute.

Zola hunkitu duzula uste duzularik agertzen dira arroila handienak. Sare (anti)sozialetan tokiko errugbi talde handienak datorren sasoi kirol atorra aurkeztean egindako "akatsa" deskubritzen duzu. Euskal Herriko zazpi probintzietan erreferentzia egiterakoan, komunikazio zerbitzukoek horrela izendatu dituzte: "Lapurdi, Basse-Navarre, Soule, Labourd, Garazi, Baïgorry et Bidos". *No comment*, benetan.

Badu mende erdi bat gure Herriaren kultura karta postal batean sartu nahi dutela, helmuga turistiko erakargarri bat saltzeko eta Parisen meneko diren jaunttoen boterea errotzeko. Piztu zaitzu haserrea! Ikasurte berria borrokaz beterik dator. Piztu bozgorailua, igo bolumena eta jaka Spartak Dementziala talde bikainaren *Folklore basque*-a kantua. Ahhhhhh... Arnasa! ●

Hiru gizarte proiektu lagunduko ditu Fagorrek

60.000 €, 40.000 € eta 20.000 €

AURKEZTU ZURE PROIEKTUA!

Izen ematea zabalik irailaren 1etik 30era

Informazio gehiago, www.fagor.eus webgunean

